Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko otsailaren 22a, asteartea — 35 — Martes, a 22 de febrero de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## OIARTZUNGO UDALA

*Kirol- kluben eta -elkarteen funtzionamendu gastuetarako eta beraien jarduna sustatzeko 2022ko dirulaguntza deialdia eta oinarri espezifikoak. BDNS (Identif.): 608874.*

Argitara ematen da Oiartzunen aurreikusitako ohiko kirol jardueretarako dirulaguntzak banatzeko deialdiaren laburpena azaroaren 17ko 38/2008 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Oiartzungo Udalaren webgunean (www.oiartzun.eus) eta Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans).

*Lehenengo. Dirulaguntzaren xedea.*

Ebazpen honen xedea hauxe da: 2022an zehar, Oiartzungo kirol- klub eta -elkarteen ohiko kirol jarduerak garatzeko, kirol modalitate bakoitzaren denboraldiak hartzen duen aldiaren arabera, norgehiagoka prozeduraren bidez, dirulaguntzak banatzeko Oiartzungo Udalaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea.

*Bigarrena. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak.*

Zehazki, dirulaguntza hauek kirol- klub eta -elkarteek eska ditzakete, baldin eta dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluak ezarritako debeku batean ere sartuta ez badaude eta Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko ordenantzaren 4. artikuluak adierazitako ezaugarriak betetzen badituzte.

*Hirugarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa.*

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 54.000,00 euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalaren 2022 urteko aurrekontuko 11102.481.341.00.02.2022 zenbakidun partidaren kontura.

*Laugarrena. Eskaerak non eta noiz aurkeztu.*

Dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak deialdia egiten duen organoari zuzenduko zaizkio, eta eskatzaileak edo hori ordezkatzen duen pertsonak sinatu beharko ditu.

Eskabideak eta inprimakiak behar bezala beteta, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik 30 egun naturaleko epean modu telematikoan aurkeztu beharko dira.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bitarteko erabilita aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Oiartzun, 2022ko urtarrilaren 28a.—Alkatea. (633)

## AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

*Convocatoria y bases específicas de subvenciones para gastos de funcionamiento y fomento de la actividad de los clubes y asociaciones deportivas de 2022. BDNS (Identif.): 608874.*

Se procede a la publicación del resumen de la convocatoria para la concesión de subvenciones a actividades deportivas ordinarias previstas en Oiartzun, de acuerdo con lo establecido en los artículos 17.3.b eta 20.8.a de la Ley 38/2008, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. El texto íntegro se puede consultar en la página web del Ayuntamiento de Oiartzun (www.oiartzun.eus) y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones: (http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans).

*Primero. Objeto de la subvención.*

El objetivo de la presente resolución es establecer las bases reguladoras para la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Oiartzun, en régimen de concurrencia competitiva, destinadas a clubes y asociaciones deportivas de Oiartzun para el desarrollo de su funcionamiento ordinario, de acuerdo con el período que abarque la temporada regular de cada modalidad deportiva, a lo largo del año 2022.

*Segundo. Condiciones para solicitar la subvención.*

Podrán acceder a la condición de persona beneficiaria los clubes y asociaciones deportivas, siempre y cuando no están incursas en ninguna de las prohibiciones descritas en el artículo 13 de la Ley General de subvenciones y cumplan con los requisitos establecidos en el artículo 4 de la Ordenanza que regula las subvenciones del Ayuntamiento de Oiartzun.

*Tercero. Importe de las subvenciones.*

Para el pago de estas ayudas económicas existe una consignación total de 54.000,00 euros, a cuenta de la partida número 11102.481.341.00.02.2022 del presupuesto del Ayuntamiento de Oiartzun para 2022.

*Cuarto. Lugar y plazo para la presentación de las solicitudes.*

Las solicitudes deberán dirigirse al órgano convocante, y deberán estar suscritas por la persona solicitante o quien la represente.

Los impresos de solicitud debidamente cumplimentados tendrán que presentarse de forma telemática en el plazo de 30 días naturales desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Asimismo, las solicitudes podrán igualmente presentarse a través de cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Oiartzun, a 28 de enero de 2022.—El alcalde. (633)

EK\CV GAO-I-2022-00633